

ERABAKITZEN DUT:

Lekenengo Artikulua.— 1986.eko Urtarrilaren 10eko Aginduz Jaurlaritzako Idazkaritza Nagusi Teknikoaren eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariari eskuratu zitzaion izenpetzeko ordezkotza indargabeturik uztea.

Bigarren Artikulua.— Toki Administrazioarako Zuzendaria izendatzea agintzen zuen Dekretuak indarra hartzen duen unetik emango ditu ondorioak Agindu honek.

Gasteiz, 1986.eko Uztailak 21.

Lehendakaritza eta Zuzentza Sailburua,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

HERRIZAINGO-SAILA

1770

Herrizaingo-Sailburuaren 1986.eko Uztailaren 7ko AGINDUA, herri-ikuskizun eta jolasbidezko ekintzetarako etxe eta tegiak zabaldu eta ixteko orduak behin-behingo araupetuz.

Euskal Herriko Autonomia-Estatutuak bere 10.38 atalean ikuskizun alorrari buruzko agintepidea ematen dio Euskal Autonomia-Elkarteari eta agintepide hori, Herrizaingo-Sailari dagokio, Herrizaingo-Sailaren egiturazko arauak onartzen dituen Uztailaren 31ko 270/1984 Dekretoaren 5. atalak ezartzen duenaren arauera, Joku eta Ikuskizun-Artezkartzaren bidez egiteratzen duela; beraz, agintepide hori egiteratuz, ikuskizunetarako euskal araudia eman ez dadin artean, herri-ikuskizun eta jolasbidezko ekintzetarako etxe eta tegiak zabaldu eta ixteko orduak behin-behingo araupetzen du Agindu honek.

Hildo honetan, Herri-ikuskizun eta Jolasbidezko Ekintzetarako Poliziaren Guztizko Araudia onartzen duen Abuztuaren 27ko 2.816/1982 Errege-Dekretoaren 70. atalean oharmandakoa betetzen da, orotariko mailan orduen bereizketa bat sartuz; alde batetik, ostirala, larunbata eta jai-besperak izan daitezenerako eta bestalde, gainontzeko egunak, sailkapen hau egiteko urtaroen aldi erizpidea erabili gabe. Erizpide hau eta sartu beharreko besteren bat, udal-mailan finkatuz sartzen da, Udalek bidezkotzat jotzen baldin badute finkatu dezaten, guztizko ordu-kopuruaren aldakuntzetarako saloa egin ahal izango dutela.

Bestalde, herri-erxe eta tegiak ixtea zer denari buruzko erizpide argi bat finkatu nahi da ere, ixteak kaleratze-ekintza bat bait dakar eta ondorioz aldi bat, eta guzti horrek, ikuskariek bere lana egiteko arau-hauspeneko jokaerak sailkatzerakoan arau-erizpide zehatza ez izatea ekartzen du.

Guzti horren ondorioz, honako hau

DISPONGO:

Artículo primero.— Dejar sin efecto la delegación de la firma de los asuntos de la Viceconsejería de Administración Local operada mediante Orden de 10 de Enero de 1986 en favor del Director de la Secretaría General Técnica del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento.

Artículo segundo.— La presente Orden tendrá efectividad desde el momento en que la tenga el Decreto por el que se dispuso el nombramiento del Director de Administración Local.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de Julio de 1986.

El Consejero de Presidencia y Justicia,
JUAN RAMON GUEVARA SALETA.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1770

ORDEN del Consejero de Interior, de 7 de Julio de 1986, por la que se regulan provisionalmente los Horarios de Apertura y Cierre de los locales y establecimientos destinados a Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

En ejercicio de la competencia, atribuida por el artículo 10.38º del Estatuto de Autonomía del País Vasco, a la Comunidad Autónoma Vasca, en materia de espectáculos, así como de la ubicación de dicha función en el Departamento de Interior, que la ejerce a través de la Dirección de Juego y Espectáculos, según dispone el artículo 5º del Decreto 270/1984 de 31 de Julio, por el que se aprueban las normas orgánicas del Departamento de Interior, la presente Orden viene a establecer, de forma provisional, en tanto no se promulgue la normativa de espectáculos vasca, el régimen de los horarios de apertura y cierre de los locales y establecimientos destinados a espectáculos públicos y actividades recreativas.

En este sentido, se da cumplimiento a lo previsto en el artículo 70 del Real Decreto 2.816/1982 de 27 de Agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de Policía de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, introduciendo una diferenciación, a nivel general, de los horarios, en función de que se trate de viernes, sábados y vísperas de festivos, por un lado, y del resto de los días por el otro, sin utilizar para hacer esta clasificación el criterio de las épocas o periodos estacionales del año. Este criterio, junto con algún otro de inclusión también necesaria, se introduce pero fijándolo en el nivel municipal con el fin de que operen de considerarlo oportuno los propios Ayuntamientos, que podrán proponer modificaciones del horario general.

Por otra parte, también se pretende sentar un criterio claro sobre qué se entiende por cierre en establecimientos y locales públicos, por cuanto que el mismo conlleva un desalajo que, indudablemente, implica tiempo, y todo ello hace que la labor inspectora de los agentes de la autoridad carezca de un criterio normativo tajante a la hora de calificar presuntas conductas infractoras.

Por todo lo cual

ERABAKITZEN DUT:

1. *Atala.*- Herri-ikuskizun eta jolasbidezko ekintzeta-rako etxe eta tegiak zabaldu eta ixteko orduak Agindu honetan ezarritakoari atxikiko zaizkio.

2. *Atala.*- Aurreko atalak aipatzen dituen zabaldu eta ixteko orduak honako hauek dira:

DISPONGO:

Artículo 1.- Los horarios de apertura y cierre de los locales y establecimientos destinados a espectáculos públicos y actividades recreativas se ajustarán a lo previsto en la presente Orden.

Artículo 2.- Los horarios de apertura y cierre a que se refiere el artículo anterior serán los siguientes:

Etxe edo tegia Local o establecimiento	Zabaltzeko ordua Hora apertura	Ixteko ordua Hora cierre
1. Ardanegi eta upeltegiak <i>Tabernas y bodegas</i>	Seiretan <i>Seis horas</i>	Hogeita hiruretan <i>Veintitres treinta horas</i>
2. Jatetxe, erretegi, self-service eta antzekoak <i>Restaurants, asadores, self-service, casas de comida y similares</i>	Seiretan <i>Seis horas</i>	Ordu batetan <i>Una horas</i>
3. Kafetegi, edaritegi eta kafe-aretoak <i>Cafeterias, bares y cafés</i>	Seiretan <i>Seis horas</i>	Ordu batetan <i>Una horas</i>
4. Edaritegi berezi, Whiskitegi, klub, amerikako edaritegi, pub eta edari-diskategiak <i>Bares especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, pubs y disco bares</i>	Hamarretan <i>Diez horas</i>	Ordu bietan <i>Dos horas</i>
5. Gazteen Dantzalekuak <i>Salas de Fiesta de Juventud</i>	Hemeretziretan <i>Diecinueve horas</i>	Hogeita bietan <i>Veintidós horas</i>
6. Diskategiak <i>Discotecas</i>	Hemeretziretan <i>Diecinueve horas</i>	Ordubi eta terdietan <i>Dos treinta horas</i>
7. Antzerki-kafelekuak eta antzekoak <i>Cafés teatro y similares</i>	Hemeretziretan <i>Diecinueve horas</i>	Hiruretan <i>Tres horas</i>
8. Ikuskizunak eskaintzen dituzten Dantzalekuak <i>Salas de Fiestas con espectáculos</i>	Hemeretziretan <i>Diecinueve horas</i>	Hiru eta terdietan <i>Tres treinta horas</i>
9. Jolas-Aretoak <i>Salones recreativos</i>	Hamaiketan <i>Once horas</i>	Hogeita bat eta terdietan <i>Veintiuna treinta horas</i>
10. Bingo-Aretoak eta Joku-Etxeak <i>Salas de Bingo y Casinos de Juego</i>	Hamazazpiretan <i>Diecisiete horas</i>	Hiruretan <i>Tres horas</i>
11. Sukaldaritza-Elkartek, Txokoak edo antzekoak <i>Sociedades Gastronómicas, Txokos o similares</i>	Zortziretan <i>Ocho horas</i>	Ordubietan <i>Dos horas</i>

3. *Atala.*- Aurreko atalean agindutakoa dena dela, ostegun, larunbat eta jai-besperetan Agindu honek aipatzen dituen etxe eta tegiak ixteko orduak honako hauek izango dira:

Artículo 3.- No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, los viernes, sábados y vísperas de festivos, el horario de cierre de los locales y establecimientos a que se refiere la presente Orden será el siguiente:

Etxe edo tegia Local o establecimiento	Ixteko ordua Hora de cierre
1. Ardanegi eta upeltegiak <i>Tabernas y bodegas</i>	Hogeita lauretan <i>Veinticuatro horas</i>
2. Jatetxe, erretegi, self-service eta antzekoak <i>Restaurants, asadores, self-service, casas de comida y similares</i>	Ordu bat eta terdietan <i>Una treinta horas</i>
3. Kafetegi, edaritegi eta kafe-aretoak <i>Cafeterias, bares y cafés</i>	Ordu bat eta terdietan <i>Una treinta horas</i>

Etxe edo tegia Local o establecimiento	Ixteko ordua Hora de cierre
4. Edaritegi berezi, Whiskitegi, klub, amerikako edaritegi, pub eta edari-diskategiak <i>Bares especiales, whiskerías, clubs, bares americanos, pubs y disco bares</i>	Hiruretan <i>Tres horas</i>
5. Gazteen Dantzalekuak <i>Salas de Fiesta de Juventud</i>	Hogeita bi eta terdietan <i>Veintidós treinta horas</i>
6. Diskategiak <i>Discotecas</i>	Lauretan <i>Cuatro horas</i>
7. Antzerki-kafelekuak eta antzekoak <i>Cafés teatro y similares</i>	Lauretan <i>Cuatro horas</i>
8. Ikuskizunak eskaintzen dituzten Dantzalekuak <i>Salas de Fiestas con espectáculos</i>	Bost eta terdietan <i>Cinco treinta horas</i>
9. Jolas-Aretoak <i>Salones recreativos</i>	Hogeita bietan <i>Veintidós horas</i>
10. Bingo-Aretoak eta Joku-Etxeak <i>Salas de Bingo y Casinos de Juego</i>	Lauretan <i>Cuatro horas</i>
11. Sukaldaritza-Elkarteak, Txokoak edo antzekoak <i>Sociedades Gastronómicas, Txokos o similares</i>	Hiru eta terdietan <i>Tres treinta horas</i>

4. *Atala.*- Biak barne daudela, bigarren ataleko 1.tik 8.erarteko idaztietan aipatutako tegietan, dagokien ixteko ordua heldu dadinean, ez da bezero bat ere sartzen utziko, ez eta edari edo bestelakorik emango; hala badagokio, girotze-musika, jolas-makina, bideo edo antzeko edozein gailu edo makinak ihardutzeari utzi behar izango diotela.

Ixteko ordua heldu ondoren, aipatutako etxe eta tegiek, hogeit minututan bezerorik gabe egon behar izango dute.

Biak barne daudela, 5.etik 8.erarteko zenbakiez aipatutako tegietan, hamabost minutu aurretik adieraziko zaie bezeroei ixteko ordua.

5. *Atala.*- Jolas-aretoetan, ixteko ordua heldutakoan, jolas makina edo tresna guztiek ihardutzeari utzi behar izango diote eta hala badagokio, ez da egaritzekorik salduko ez eta bezero berririk sartzen utziko.

6. *Atala.*- Bingo-Aretoetan eta Joku-Etxeetan, ixteko ordutik aurrera ezin izango da bingo-jokaldirik edo Joku-Etxeetako berezko jokurik egingo eta halaber, ez da bezero berririk sartzen utziko eta joku-makinek ihardutzeari utziko diote. Aretook, hogeit minututan bezerorik gabe egon behar izango dute.

7. *Atala.*- Patroiaren jai edo herriko jaien zioz egin daitezten gau-jai, musikaldi edo beste leko ikuskizunak hasteko eta bukatzeko orduak zehaztea dagozkien udaleko agintariei dagokie eta hauek, Herrizaingo-Saileko Joku eta Ikuskizunetarako Artezkaritzari erabaki horren berri eman behar izango diote.

8. *Atala.*- Indarrean dauden arabei jarraituz, agintaritzaren baimena behar duten herri-ikuskizun guztietan, hoiak hasteko eta bukatzeko ordu zehatzak, baimenean bertan erasota utzi behar izango dira.

Artículo 4.- En los locales mencionados en los apartados uno al ocho inclusive, del artículo segundo, a partir de la hora de cierre de los mismos, no se permitirá el acceso de ningún cliente, ni se expenderá consumición alguna, debiendo igualmente, en su caso, quedar fuera de funcionamiento tanto la música ambiental, como las máquinas recreativas, videos o cualquier aparato o máquina similar.

Llegada la hora establecida para el cierre, los locales y establecimientos aludidos deberán estar totalmente desalojados en veinte minutos.

En los locales mencionados con los números cinco al ocho ambos inclusive, se deberá poner en conocimiento de la clientela el cierre con quince minutos de antelación.

Artículo 5.- En los salones recreativos deberán, llegada la hora de cierre, quedar todas las máquinas y aparatos de juego fuera de funcionamiento, así como, en su caso, dejarse de expender cualquier artículo de consumo, e impedirse el acceso de nuevos clientes.

Artículo 6.- En las Salas de Bingo y Casinos de Juego, a partir de la hora de cierre no podrá realizarse ninguna partida de bingo o practicarse ninguno de los juegos propios de Casinos, impidiéndose igualmente el acceso de nuevos clientes y poniéndose fuera de servicio las máquinas recreativas. Los locales deberán estar totalmente desalojados en el término de veinte minutos.

Artículo 7.- La determinación de los horarios de comienzo y terminación de las verbenas, conciertos y demás espectáculos que tengan lugar con ocasión de fiestas patronales o locales corresponderá a las autoridades municipales correspondientes, quienes deberán comunicar dicha determinación a la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior.

Artículo 8.- En aquellos espectáculos públicos que, según la normativa vigente requieran autorización gubernativa, la determinación concreta de la hora de comienzo y de terminación de los mismos, se hará constar en la propia autorización.

9. *Atala.*- Ohi ez bezelakoetan, agiantza edo egun zehatzak direla zio, azoka, bilkura edo antzerako izaerazko gertakizunei begira, edo orohar, urtaro edo turismoaldiei begira, Udako agintariak, Agindu honetan jarritako orduak aurreratu edo atzeratzea zuritutakotzat jotzen baldin badute, Herrizaingo-Saileko Joku eta Ikuskizunetarako Artezkarietari erabaki horren berri eman behar izango diote eta honek, hamabost eguneko epearen barruan, aldakuntza hori bidezko denentz erabakiko du.

10. *Atala.*- Zaingo-arduradunek, Agindu honen agiango hauspenei buruz egin ditzaten salaketa-agiritan gutxienez honako hauek jarri behar izango dituzte:

10.1. Izena, abizenak eta etxe edo tegiaren jabeak duen Erresumako Nortasun-Txartelaren zenbakia.

10.2. Salaketa egiten duen/duten arduradun/arduradunen zenbakia.

10.3. Ikuskaketa hasi zeneko eguna eta ordua.

10.4. Tegiaren izena eta zein moztatakoa den.

10.5. Etxe edo tegian dauden norbanakoen gutxi gora beherako zenbatekoa eta zeintzu diren, edo hala badagokio, horietariko bat edo batzuren izena.

10.6. Egindako agiango hauspena edo hauspenak.

10.7. Salaketa egiten duten zaingo-arduradunen, tegiaren baimendunaren edo honen ezean tegiko arduradunaren izenpea.

11. *Atala.*- Horretarako agintepidea duten agintariak, Agindu honetan agindutakoaren agiango hauspenengatik, beren menpean dauden zaingo arduradunek salaketa-agiri bat egin ondoren, Joku eta Ikuskizunetarako Artezkarietara bidali ahal izango du agiri hori, guzti hori, salaketaren gai diren eginkizunek duten zernola-koak bereziak direnez gero, dagokion zigortze-zehaztapidetzaren biderapena egitea eta zigorra jartzea agintariak egin behar dutela jo dezatenean.

LEHENENGO AZKEN ERABAKIA

Agindu honen bederatzigarren atalak aipatzen dituen orduak aurreratu edo atzeratzeko baimena eman dezaten Joku eta Ikuskizunetarako Artezkarietaren erabakiak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Kondaira-Lurraldekoan argitaratuko dira, guztiek jakin dezaten.

BIGARREN AZKEN ERABAKIA

Agindu honetan agindutakoaren aurka egon daitezken maila bereko edo apalagoko manu guztiak indargabetuta gelditzen dira.

HIRUGARREN AZKEN ERABAKIA

Dekreto honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunaren biharamonean hartuko du indarra.

Gasteizen, 1986.eko Uztailak 7.

Herrizaingo-Sailburua,

LUIS MARIA RETOLAZA IBARGÜENGOITIA.

Artículo 9.- Si por circunstancias excepcionales, bien sea para supuestos y fechas concretas, en atención a acontecimientos de carácter ferial, certámenes o análogos, o con carácter general, atendiendo a épocas estacionales o turísticas, las autoridades municipales entendieran justificada una ampliación o reducción de los horarios de cierre establecidos en la presente Orden, deberán solicitarlo a la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior, quien resolverá sobre la procedencia o improcedencia de dicha modificación, en el plazo de quince días.

Artículo 10.- En las actas de denuncia levantadas por los agentes de la autoridad relativas a presuntas infracciones de la presente Orden deberá constar como mínimo:

10.1. Nombre, apellidos y número del Documento Nacional de Identidad del titular del establecimiento o local.

10.2. Número del agente o agentes de la autoridad denunciante.

10.3. Día y hora en que haya tenido comienzo la inspección.

10.4. Nombre del local y tipo del mismo.

10.5. Número aproximado de las personas que se encuentren en el establecimiento o local e identificación, en su caso, de alguna o algunas de ellas.

10.6. Presunta infracción o infracciones cometidas.

10.7. Firma de los agentes de la autoridad denunciante, del titular del local o, en su defecto, del encargado del mismo.

Artículo 11.- Las autoridades municipales competentes, levantada un acta de denuncia por los agentes de la autoridad de ellas dependiente, por presuntas infracciones de lo dispuesto en la presente Orden, podrán remitir las mismas a la Dirección de Juego y Espectáculos, si entienden que por las características de los hechos denunciados, la tramitación del oportuno expediente sancionador y la imposición de la correspondiente sanción debe ser impuesta por la autoridad gubernativa.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

Las resoluciones de la Dirección de Juego y Espectáculos del Departamento de Interior por las que se autorice la ampliación o reducción de horario a que se refiere el artículo nueve de la presente Orden se publicarán, para general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico respectivo.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

Quedarán derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo prescrito en la presente Orden.

DISPOSICION FINAL TERCERA

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de Julio de 1986.

El Consejero de Interior,

LUIS MARIA RETOLAZA IBARGÜENGOITIA.